

Dena maitasunez egin

Herrien eta komunitateen artean bizitako elkarrekiko maitasuna itxaropen-seinale da gizateria osoarentzat, eta kontsolagarri beti mehatxatzen duten zatiketentzat.

Carlos Díaz filosofo espainiar garaikideak honela dio: "*Maitatzeak maitatuaren benetako sorkuntza dakar maitalearen aldetik; maitatua bere aurrean guztiz baliotsua, duina agertzen zaio eta doakoa eta hertsiki eskatzen ez den zerbaiten, maitasunaren, hain zuzen ere, merezidun. Orduantxe sortzen dira harengan maitatzeko botere eta gaitasun aktiboa*". Kontzientzia berri horrek ematen digu besteengana beldurrik gabe irekitzeko aukera, haien beharrak ulertzeko eta haien ondoan jartzeko, baliabide materialak eta espiritualak partekatuz.

Begira ditzagun Jesus, Gandhi, Albert Schweitzer edo Ama Teresa bezalako pertsonen ekintzak. Beti izan dira lehenak ematen. Pilatzeko sen egoistari eskuzabaltasuna kontrajartzen zaio; geure beharretan itxeari, bestearekiko arreta; edukitzearen kulturari, ematearena. Kontua ez da asko edo gutxi eman dezakegun. Axola duena da nola ematen dugun, zenbat maitasun jartzen dugun bestearenganako arreta keinu txiki batean ere.

Chiara Lubichek idatzi zuen: "*Maitasuna funtsezkoa da, lagun hurkoarengana hurbiltzen dakielako, baita entzutean, zerbitzatzean edota prestutasun keinu soil batekin ere. Zein garrantzitsua den [...] bestearekiko maitasuna izaten saiatzea! Haren bihotzean sartu eta berau arintzeko bide zuzena aurkituko dugu*".

Horrela, besteengana hurbildu ahal izango gara errespetuz eta gardentasunez, sormenez, beren asmo onenei lekua utziz, bakoitzak bere ekarpena egin ahal izan dezan guztion onerako. Gure eguneroko bizitzan une zehatz bakoitza baloratzen laguntzen digu: etxeko lanetan edo landakoetan, tailerrean edo bulegoan, eskolako lanetan edota arlo zibil, politiko eta erlijiosoko erantzukizunetan. Dena zerbitzu arretatsu eta eskuzabal bihur daiteke.

Kamerungo esperientzia esanguratsu bat aipatu nahi dugu, Bueako (Kamerungo hego-mendebaldea) gazte talde batek egindakoa. Gazte horiek gauza eta diru bilketa bat antolatu zuten, gerraren ondorioz lekualdatutakoei laguntzeko. Ezagututako pertsona ugarien artean, egun batean, ihesaldian beso bat galdu zuelako zeharo jota zegoen gizon batekin topo egin zuten. Desgaitasun horrekin bizitzea ez zen erraza berarentzat, bere ohiturak izugarri aldatu behar izan baitzituen; eguneroko bizitzarako erronka handia. Gazte haien bisitak poz handia eman zion, eta zanpagarriak zitzaizkion adorerik gabeko une haiek gainditzeko aukera eman zion, Reginak kontatzen duen bezala, bere sentimendurik intimoenak hitz hauekin adierazteraino: "*Zuen bisitaren bidez maitasun handia sentitu nuen, eta gaur egun itxaropena ematen dit aurrera egiteko*". Gizon horren hitzek are indar eta kemen handiagoa eman zioten gazteek hasitako ekintzari, jakinik, Maritak dioten bezala, "*ezer ez dela txikiegia maitasunagatik egiten bada*".

Egin dezagun gaur aurrera gure konpromisoarekin, jakinik maitasuna dela mundua mugiarazten duena, eta gizaki ororen bizi-beharra dela. Egiazta dezagun!